



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2016ko APIRILAREN 5ean EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2016ko apirilaren 5ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Onintza Gorostidi Murua
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Uxue Etxebeste Eizagirre
Xabier Mugika Letamendia
Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.
-2016ko martxoaren 1ean egindako ohiko bilkuraren akta.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Oargi Mendi Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 5. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari, 2016ko 1. Eta 2. Hiruhileko ekarpenaren onespena, hala bada.**
- 6. J.A.G. jaunak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 7. Tolosaldeko Atariak aurkezturiko 2016ko ekitaldiko hitzarmenaren onespena, hala bada.**
- 8. Alkizako herritarrei euskara ikasketak burutzeko diru-laguntzeen eskaeraren onespena, hala bada.**
- 9. Beleburupe guraso elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera, hala bada.**
- 10. Beleburupe guraso elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera, hala bada.**
- 11. 2016 urterako udal zergen hobari eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 12. 2016 oporrak bakean programarako diru-laguntzaren onespena, hala bada.**
- 13. Beste batzuk.**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

14. Erregu, galdera eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2016ko martxoaren 1eko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

05/2016 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 2koa, M.T.I. langileari kontratua aldaketzeko onespena ematea, ebazten duena.

06/2016 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 2koa, B.O.L., Ur Mara eta hainbat sailalara doan bidea konpontzeko aurkeztutako aurrekontua onartzea, ebazten duena.

07/2016 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 18koa, 2015eko aurrekontuaren likidazioa onartzea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

CALPARSORO INDUSTRIAL	20,42
RECAMBIOS IBARRA	14,24
EUSKALTEL	63,35
AUDAX	177,28
CORREOS	16,64
AUDAX	445,48
SOLRED	98,28
ARGITU	172,82



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

MOVISTAR	66,92
MOVISTAR	58,40
MOVISTAR	84,39
AUDAX	139,83
INFOBIBLIOTECAS	260,05
EBA ERKIZIA	1.746,94
TOLOMENDI	152,50

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **3.517,54** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

OARGI MENDI ELKARTEAK EGINIKO DIRULAGUNTZAREN ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Oargi Mendi Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera, hau da, 2016ko ekainaren 19an ospatuko den T3T(Tolosaldeko 3 Tontorrek)-eko II. edizioaren antolakuntzaren finantzazioan laguntzeko.

Ikusirik aipaturiko iraupen luzeko lasterketa honetan, partehartzaileak Alkizako herrian izango duela dagokion kontrola.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Oargi Mendi Elkarteari 200 eurotako diru-laguntza ematea, datorren 2016ko ekainaren 19an ospaturko den T3T II. edizioa, iraupen luzeko mendi lasterketaren antolakuntzaren finantzazioan laguntzeko.

BIGARRENA: 200,00.- eurotako gastua onartzea.

HIRUGARRENA: Oargi Mendi Elkarteari jakitera ematea, urte bukaeran gastuen kitapena aurkeztu beharko duela Udaletxe honetan.

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri Oargi Mendi Elkarteari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI, 2016KO 1. ETA 2. HIRUHILEKO EKARPENAREN ONESPENA, HALA BADA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik 2015eko urtarrilaren 28an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2016 ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Alkizako Udalak burutu beharreko ekarpena 19.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Alkizako udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

- Gizarte zerbitzuak: 11.000,00 euro
- Kultura: 8.000,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 19.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2016 ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko. Kontzeptu hauetan banatuta:

- Gizarte zerbitzuak: 11.000,00 euro
- Kultura: 8.000,00 euro

BIGARRENA.- 19.000,00 eurotako gastua onartzea.

SEIGARREN PUNTUA

J.A.G. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Koldobika Jauregi zinegotzia, 20.30 orduetan bertaratzen da.

Ikusirik J.A.G. jaunak eginiko eskaera, non azaltzen duen Peru Bidea kaleko 2^a A etxebizitza, trastero eta garajea salgai jartzeko asmoa duela. Etxebizitza hau Alkizako S1 sektorearen barruan tasatuak zeuden etxebizitzaren artean dago.

Aipaturiko bizitza eta bere eranskinei buruz esan, administrazio baldintzako pleguetan etxebizitzaren transmisioa arautzen zela, lehentasunezko erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea 30 urtetan Alkizako udaletxearen esku geratuaz.

Guzti hau ikusirik, J.A.G. jaunak Alkizako udaletxeari jakitera ematen dio Peru bidea kaleko 2^a A etxebizitza, trastero eta garajea saltzeko asmoa duela, eta Udaletxeari aukera ematen dio lehentasunezko erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea egikaritzeko.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Alkizako Udalak uko egiten dio, Peru bidea kaleko 2 zenbakian kokatua dagoen 2ºA etxebizitza, trastero eta garajearen lehentasunezko erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideari.

BIGARRENGOA.- J.A.G. jaunari jakinarazi, aipaturiko etxebizitza eta bere eranskinak ezingo dituela saldu, Udalak finkatutako prezioa baino garestiago. Hau da, Udal Aholkulari teknikoak 2016urteko urtarrilaren 21eko txostenean finkatzen dena.

HIRUGARRENGOA.- J.A.G. jaunari jakinarazi, saltzen duen etxebizitza eta bere eranskinak Alkizako Udalarekin lotura izan beharko dutela 30 urterarte falta zaizkion urte kopuruarengatik.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri J.A.G. jaunari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

TOLOSALDEAKO ATARIAK AURKEZTURIKO 2016KO EKITALDIKO HITZARMENAREN ONESPENA

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldeak aurkezturiko Alkizako Udala eta Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M. -ren arteko 2016 urterako Lankidetzaren Hitzarmena. Hitzarmenaren helburua, TKT-K eta Udalak, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzea izango da.

Ikusirik aipaturiko Lankidetzaren hitzarmenean, Alkizako Udalak, Tolosaldeko Komunikazio Taldeari emango dion diru-laguntza zehazten dela. Alkate-Lehendakari jaunak biztanleko 4€ ematea proposatzen duelarik.

Diru-laguntzaren proposamenarekin Udalbatzako kideak diren Hernandez eta Aranzabe zinegotziek gai honetan abstenitu egingo direla azaltzen dute. Beste guztiek proposamenekin ados agertzen direlarik.

Gaia azterturik, bertaratuek, gehiengoz, ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldearen eta Alkizako Udalaren arteko Lankidetzaren hitzarmena onestea, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzeko. Hitzarmena 2016 urterako balioa izango du.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Jon Umerez Urrezola, Alkizako Udaleko Alkate-Lehendakari jauna ahalmentzea aipaturiko hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldeari 1.448,00 eurotako diru ekarpen zuzena ematea, egonkortasun ekonomikoa bermatzeko (biztanleko 4€).

LAUGARRENA: 1.448,00 eurotako gastua onestea.

BOSTGARRENA: Erabaki hauen berri Tolosaldeko Komunikazio Taldeari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO HERRITARREI EUSKARA IKASKETAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZEN ESKAERAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako herritarrei euskara ikasketak burutzeko diru-laguntza deialdia kaleratu zela, bi herritarren eskaerak izan ditugularik.

Ikusirik Alkizako Udalak herritarren euskaratze prozesuak bultzatu nahi dutiela.

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiak horrelako ekintzak bultzatzeko diru-laguntzak atera dituela.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskararen erabilera soziala normalizatzeko tokiko planak garatzeko diru-laguntza eskaera egitea, 2016 urteari dagokiona.

BIGARRENA.-M.A. andreak eginiko diru-laguntza eskaera onestea, euskara ikastaroa egiteko.

HIRUGARRENA.- J.M. andreak eginiko diru-laguntza eskaera onestea, euskara ikastaroa egiteko.

LAUGARRENA.- M.A. eta J.M. andreei jakinaraztea, diru-laguntzaren ordainketa bi zatitan egingo dela:

1. Ordainketa: Matrikularen % 50-a, matrikula eta ordainagiria Udaletxe honetan aurkezten dutenean.
2. Ordainketa: Ikastaroa amaitzean, gelditzen den % 50-a, Udaletxe honetan asistentzi ziurtagiria aurkezten dutenean.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BOSTGARRENA: Erabaki hauen berri M.A. eta J.M. andreei ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA
BELEBURUPE GURASO ELKARTEAK AURKEZTURIKO MEMORIAREN
ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Beleburupe Guraso Elkarteak aurkeztu duela, 2015. Urtean Alkizako Udalak emandako diru-laguntzaren memoria.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Beleburupe Guraso Elkarteak aurkezturiko 2015 urteari dagokion memoria onestea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri Beleburupe Guraso Elkarteari ematea.

HAMARGARREN PUNTUA
BELEBURUPE GURASO ELKARTEAK EIGINIKO DIRU-LAGUNTZA
ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik Beleburupe guraso elkarteak, ekaineko egun osoko festan, San Juan bezperako festan, herriko festetan, San Martin eguneko festan eta gabonetan hainbat ekintza burutzen dituztela. Hauen kostua finantzatzeko Alkizako Udalarari diru-laguntza eskaera egiten dielarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Beleburupe guraso elkarteari 320 eurotako diru-laguntza ematea, urtean zehar hainbat ekintza burutzeko.

BIGARRENA: 320 eurotako gastua onartzea.

HIRUGARRENA: Beleburupe Guraso Elkarteari jakitera ematea, egin duen gastuen memori bat aurkeztu beharko duela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HAMAIKAGARREN PUNTUA **2016 URTERAKO UDAL ZERGEN HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA,** **HALA BADA.**

Ikusirik 2016 urterako udal zergen eta tasen hobariak onestu direla, ondasun higiezinaren gaineko zergaren kasuan, famili ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinaren kasuetan.

Ikusirik Alkizako Udalak, 2016ko urtarrilaren 28an deialdia zabaldu zuela, hobari edo bonifikazio eskaerak egiteko, azken eguna 2016ko otsailaren 29-a izan zelarik.

Ikusirik, goian aipaturiko epean zazpi hobari eskaera egin direla, famili ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta izateagatik.

Ikusirik, zazpi eskaera hauek baldintza guztiak betetzen dituztela aipaturiko hobariak jasotzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Jon Umerez eta Jose Ramon Hernandez, alkate eta zinegotziaren abstentzioarekin, gehiengoz, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.R.H.. Jaunak egin duen 2016 urterako ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

BIGARRENA: J.M.G. Jaunak egin duen 2016 urterako ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

HIRUGARRENA: G.C. andreak egin duen 2016 urterako ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

HIRUGARRENA: I.U.U jaunak egin duen 2016 urterako ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LAUGARRENA: M.K.M. andreak egin duen 2016 urterako ondasun higiezin gainera zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %30eko hobaria.

BOSTGARRENA: G.A. andreak egin duen 2016 urterako ondasun higiezin gainera zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %30eko hobaria.

SEIGARRENA: A.M. jaunak egin duen 2016 urterako ondasun higiezin gainera zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %30eko hobaria.

ZAZPIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.

HAMABIGARREN PUNTUA
2016 OPORRAK BAKEAN PROGRAMARAKO DIRU-LAGUNTZAREN ONESPENA, HALA BADA.

Ikusirik Alkizako familia batek asmoa azaldu duela Oporrak bakean programaren bitartez, haur saharai bat euren familian hartzeko.

Ikusirik Alkizako Udalak azken urte hauetan bezala bere interesa azaldu duela, Alkizako familia batek asmoa izanez gero haur saharai bat bere etxean hartzeko, honen gastuak Udalaren gain hartzea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Oporrak bakean programarentzat 1.900 eurotako diru-laguntza bat onartzea. Alkizako familia batek haur saharai bat hartzeko eskaera egin duenez, honek suposatuko dizkion gastuak finantzatzen laguntzeko.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Tolosaldeko gizarte zerbitzuari ematea.

HAMAIRUGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

13.1. 2015 EKITALDIKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ondoren batzarkideei 2015 ekitaldiko Udal Aurrekontu Orokorren likidazioaren berri ematen da, 2016/07 zenbakia duen eta 2016ko martxoaren 18an Alkate Ebazpenez onartua izan zena:

2016/07 ALKATETZA EBAZPENA

Udal honen 2015ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehen.- Udal honen 2015ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2015-12-31n:		51.537,13
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2015-12-31n:		53.096,80
Aurrekontuko zordunak :	48.609,21	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	4.487,59	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2015-12-31n:		18.256,46
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	5.792,82	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	12.463,64	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2-3):		86.377,47
5.- Saldo kobragaitzak:		265,26
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):		86.112,21
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
8.- Kontingentzietarako hornidurak		0,00
9.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7-8):		86.112,21



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

10.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-13.486,90
11.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-3.100,90
12.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	0,00
13.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
14.- Aurrekontu emaitza (10+11+12+13):	-16.587,80
15.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	37.348,90
16.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	29.258,23
17.- Kreditu gerakinak, guztira (15+16):	66.607,13

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

13.2.LANKIDETZA HITZARMENAREN ONESPENA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUAREN ETA ALKIZAKO UDALAREN ARTEKOA, UDAL ERROLDAREN DATUAK EGIAZTATZEKO

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko komunikazioko departamentuak Alkizako Udaletxearekin Lankidetza hitzarmen bat sinatu nahi duela, udal erroldaren datuak egiaztatzeko.

Ikusirik Alkizako Udalak interesa duela Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko komunikazioko departamentuaren lankidetza hitzarmena sinatzeko, udal erroldaren datuak egiaztatu ditzan.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko komunikazioko departamentuak eta Alkizako Udalaren arteko Lankidetza hitzarmenaren onespena, udal erroldaren datuak egiaztatzeko.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Jon Umerez Urrezola, Alkizako Alkate-Lehendakari jauna ahalmenu aipaturiko hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernanzako eta Gizartearekiko komunikazioko departamenduari ematea.

13.3. 2016 URTEKO TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN ZERGA ERROLDA ONARTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2016 urteko trakzio mekanikodun ibilgailuen udal zerga kobratzeko errolda prestatua dagoela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udaleko 2016 urteko trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga errolda onartzea.

BIGARRENA.- Alkizako Udaleko 2016 urteko trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga jendaurrean ipintzea edonork aztertu eta egoki dituen alegazioak burutu ditzan.

HIRUGARRENA.- 2016 urteko trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga ordaintzeko ondorengo borondatezko epea ipintzea: 2016ko maiatzaren 2tik uztailearen 1era bitartean, biak barne.

HAMALAU GARREN PUNTUA ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK

14.1. IGELDORI BABESA EMATEKO, IGELDOKO ITXAS AURRE ELKARTEAK AURKEZTURIKO IDATZIARI ATXIKIMENDUA

Itxas aurre elkarteak aurkezturiko "Igeldori babesa" adierazpena azaltzen da, non ondorengoa dioen:

"HERRI TXIKI, ALT XOR HANDI

Badira Gipuzkoan 2.500 biztanletik behera dituzten 48 udalerrri. Egunez egun, bere bidea egin, bere etorkizuna erabaki eta pausoz pauso eraikitzen dutenak. Baina badira ere, udalerrri izan nahi eta ezin duten herriak ere (Itziar, Igeldo, ...). Guri ez digute 48 udalerriek egiten ari diren bide berbera egiten uzten.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Globaltasunaren aro honetan txikiegiak omen gara eta udalerrri bihurtzea ez omen da gauza ona ez guretzat ez Gipuzkoarentzat ere. Korronte orokorraren kontrakoa omen da. Eta hartan sakontzen du joera nagusiak eta baita agintariak ere, udalerrriak batu araziz, udalerrri baino entitate txikiagoak desagerraraziz eta berrien sorkuntza debekatuz. Nork erabaki du handia izatea ona dela eta txikia izatea kaltegarria?. Oker bizi ote dira 48 udalerrrietako biztanleak “txikiak” direlako? Nahiago ote dute hauek halaberrez batu eta handiago baten partaide izan?

Igeldorrok, Gipuzkoako hiri handienaren parte izatea zer den ondo dakigu. Donostiako parte izatera behartzen gaituzte gure hitza entzun gabe. Eta guk, handi horren parte izanik, ez dugu gure herriarentzat etorkizunik ikusten. Izan ere, udalerrri izaten utzi ez baina egunerokotasunean beraientzat garrantzi gutxiko periferia gara. Gure beharrak azkenak dira, udaleko sosak ez dira sekulan iristen, gure iritzia eta eskaerak ez dira kontuan hartzen. Betebeharrez ari garenean, ordea, hori, bai, handi horren hiritarrek dituzten betebehar guztiak ditugu (zergak, araudiak...), multzo handiaren behar eta nahietara erantzutera mugatu behar garen eremu bilakatu gaituzte.

Badakigu zuetako bakoitzak Gipuzkoan duen garrantzia eta zuen herritarrentzat udalerrri izateak suposatu diena. Igeldorrok zuen bide berbera egitea, udalerrri izatearena, hautatu genuen. Guri, ordea, ez digute eskubide hori onartu nahi 20 urteko prozesua eta gero. Itsasoko adibideak, berriz, gauzak oso bestelakoak izan daitezkeela frogatzen du. Urtebetean eta 200 biztanle baino gutxiago izanda, administrazioek udalerrri izateko eskaera babestea lortu dute. Pozteen gara, administrazioek kasu honetan izan duten jokabidea baita, hain zuzen ere, nagusitzea eskatzen duguna.

Globaltasuna eta hainbeste miresten den handitasunaren aurrean, guk, denon “txikitasuna” aldarrikatu nahi dugu. Asko baita emateko duguna. Asko baita dagoeneko ematen duguna: ohitura zaharren, gure hizkuntzaren eta historiaren gordeleku, gizabanako harreman estuen adibide, herriaren kudeaketa hurbil eta zuzenago baten gune aproposa, gure ama luraren zaindari, lehen sektorearen babesleku,..... Ez dugu “handitasun” horren nagusitasunean sinisten, gure errealitatea maite eta aldarrikatu nahi dugu, igeldotarren hitza errespetatua izan dadila exijitzen dugu.

Horregatik gatozkizue zuen elkartasuna eskatzera igeldotarren alde eta herri/udalerrri “txikien” alde.

Eta elkartasun hori adierazteko honakoa eskatu nahi dizuegu: idatzi hau babestu eta apirilaren 23an (Bulebarrean 17:30-ean) Igeldori udalerrri izateko egin duen hautua errespetatua izan dadin eskatzeko antolatu dugun manifestaldira zuen udalerrrietako herritarrei deialdia zabaltzea eta, ahal izanez gero, ordezkaritza bat bidaltzea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Doakizuela, aldez aurretik, gure eskerrik beroenak elkartasun dei honi arreta jartzeagatik. Garai zaharretan bezala, elkarlana eta elkartasuna izan dadila gure harremanen oinarria.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Itxas Aurre Elkartek aurkezturiko Igeldori babesa adierazpena bere osotasunean onesten du.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 21.30 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.